

POESIA

Hitzaren idazle

Iker ZALDUA

Hitza du ardatz poesiak, hitza da poesiak adierazten dizuna, baita isildutako, eta isilarazitakoa ere. Iraultzaren kargamenduak hitzez beterik egon ohi dira, ondoren bolboraren usain gailentzen den arren, gehiegitan.

Ingeborg Bachmannek (1926-1973) bikain erabiltzen zuen hitzaren arma, bazekien hitzak hautatzen, hitzak isiltzen eta mezu sarkorrak idazten. Austrian jaio zen Alemaniako gerraondoa. Horrenbestez, Beñat Sarasolak hitzaurrean adierazi bezala, erronka bat aurrez aurre zuela jaio zen, hau da, «nola idatzi hizkuntza batean non goitik-behera dagoen erregimen makur hark kutsatua?».

Antologia honetan, "Erbeste" izeneko poeman, ikus daiteke, Bachmann berak argiro aitortzen duen kezka hori: «Ni neure alemanarekin/ hodei hauek inguruan /etxetzat horixe / hizkuntza guztien barrena».


Are argiago geratzen da hitzaren garrantzia "Zuek hitzok izenekoan": «Zuek hitzok, altxa, zatozte nire atzetik! / Eta dagoeneko elkarrengandik urrun, urrunegi / bagaude ere, aldendu egingo gara

/ beste behin, amaierarik ezerantz». Poema honetan hitz zehatza, konkretua, topatzeko bere obsesioa islatzen da, eta baita topatu ezinak sorrarazten zion herostura ere.

Ordurako Erroman izango zuen bizilekua ziurrenera. Bertara aldatu baitzen 1953an eta han murgildu zen hitzaren matxinadan. Erroma da erbeste hori eta liluratu egiten du "Erroma gauz" izenekoak salatzen duenez: «Zabuaren taulak goraka / zazpi muinoak bahitu ostean, ur ilunetara / ere lerratzen da / gure zamaz eta estutuz».

Tiber ibaiak bustitzen duen hirian hil zen Ingeborg Bachmann 1973. urtean, bere logelan, istripuz (ustez) pizturik utzitako zigarreta batek eragindako suteak utzitako zaurien ondorioz, ospitalean.

Harribitxiak utzi zituen ordurako, askotan gertatzen den moduan, orduan orain bezalako aitortza izan ez zutenak. Antologia honetan "Curriculum Vitae" izeneko da, nire esku-zorroan gordeta eramango dudana. Poema oso landua da, berak jorratutako gai asko ukitzen dituena (hitza, nazismoa, heriotza, Erroma bera zeharka). Oso poema zorrotza da, gordina: «Garai hantusteetan / arin



MUNDUKO POESIA KAIERAK:

INGEBORG BACHMANN

Ingeborg Bachmann. Itz.: Nagore Tolosa.

Susaa, 2015.

9,50 euro.

joan behar du batek argi batetik / bestera, herri batetik / bestera, Ostadarraren azpian, / konpasaren punta bihotzean, / gaua erradio gisa hartuta».

Tonu tristea, amorrus beterikoa, nazismoaren lotsa askatuko balu bezala hitzetan. Antologikoa benetan. Irakurketa baikoitzarekin topatuko du irakurleak zertzelada ezkutuko bat, aurrez oharkabean igaro dena, berrirakurtzekoa amai gabeki.

Finean, bere poesia halako iruditu zait; museo batean pintura-obra baten aurrean jarri eta lehen begiradan lau zertzelada topatuko dituzu, bigarregoa beste lau eta, apurka, zentzu erabatekoa izango du aurrez aurre duzunak. Picassoren "Gernika" etorri zait burura, ez dakienak irudi desitxuratua ikusiko dituz, ulertezinak, begiratuaren begiratu formak topatuko dituz eta, aztertu ondoren, esentzia osoa ikusiko dio, koadroan garrasiak entzuten diren moduan Bachmannen obran ere irudiak ikusiko dira argi. Horretarako, ezinbestekoa da irakurketa pausatua, guztia jarraian irakurritu ulertu ez izanaren korapiloa izango baitugu sabelean.

Azkenik, Nagore Tolosaren lan bikaina azpimarratu nahiko nuke; hitza horrenbeste zaintzen zuenaren poesia itzultzea berez da ausarkeria eta porrotaren ziztada behin baino gehiagotan izango zuen ziurrenera, baina, zinez diot, garaile irten dela erokeria horretatik.

HAUR LITERATURA

Catherineren munduak

CATHERINE CERTITUDE

Patrick Modiano. Itz.: Juan Luis Zabala.

Erein, 2015.

10 euro, 96 orrialde.

Asun AGIRIANO

Catherine Certitude" da Patrick Modiano 2014ko Literatura Nobel saridunaren (Boulogne-Billancourt, 1945) haurrentzako eleberririk ezagunena. Berriki Erein argitaletxeak eskaini digu ezusteko polit hau, Juan Luis Zabalak itzulita eta Sempe (Bordele, 1932) Frantziako ilustratzaile garrantzitsuen marrazki zoragarriekin.

W. H. Audenek zioen ez dagoela haurrentzat soilik den liburu onik, eta honekin ere horrelaxe da, helduek ere gustuko izango dute eleberririk labur eta eder hau.


Narratzailea Catherine da. Egun, New Yorken bizi da eta Parisen igarotako haurtzarora kontatzen du: dantza ikaslea izan zeneko garaia oroitu eta distantziak ematen duen urruntasunetik kontaketa goxoa eta zehaztasunez beteriko narrazioa harilkatzen ditu. Iraganari galdetuz, garai hartako giroa eta aitarekin zuen harreman berezia berpiztu ditu, eta

1960ko hamarkadako istorio txikiak, lekuetako xehetasunak eta pertsonaiak deskribatzen ditu. Orduan ondo ulertzen ez zituen kontuak argiago agertzen zaizkio orain.

Protagonista bitxiak ukitu umoretsuarekin zipriltinduta aurkezten dizkigu, esaterako, Casterade jauna, aitaren bazkide zorrotz eta "ezpainextua", lezio moralak ematea atsegin zuena; edo Dismailova andrea, dantza irakaslea, errusiar doinu faltsuarekin hitz egiten zuena. Pertsonaia xume eta xeble samarrak, Parisiko gerra osteko giro pobre eta ilunean bizirauteko gezur txikiak sinetsi behar zituztenak. Catherinek berak ere, pertsona nagusien manien erdian, bere antiojoen botere misteriotsuan sinetsi behar zuen: betaurrekorik gabe mundua leku goxoa, leuna eta lanbrotsua zen.

Orduan, denbora gelditzen zen eta ametsetan murgildu zitekeen. Betaurrekoekin, berriz, mundua toki gogor eta zehatza zen.

Konparazio polita eta joko bitxia dago istorioaren muinean. Catherineren aita ere betaurrekoduna da, eta alabarekin sentsazio berbera konpartitzen du. Bizitza gogorra izanda ere, munduari bi modutara begiratu ahal zaio, betaurrekoekin edo gabe. Mundu erreala... eta bestea, go-



xoa eta ferekatzailea, beldurrik barikoa. Orduan denbora gelditzen da, eta dena ondo doa.

Haur literaturak betiere jolastu egiten du haurtzarora joateko bidaiaren erronkarekin, helduok sarri-sarri egiten dugun bezalaxe, orduan gertatutakoak gaurko begiekin ikusi eta ulertu guran.

"Catherine Certitude" irakurtzea gozamen hutsa da, eta Patrick Modianoaren li-

buruetako ohiko gaiak azaltzen dira hemen ere: iragana eta aldentzea nagusiki. Ofizio misteriotsua du Catherinen aitak, ama aldiz kanpoan bizi da; itxurak gorde egiten dira; joko bat izango balitz moduan, umoretsu agertzen dira handiustekak, goxotasunez apainduak. Moralak ertz asko ditu eta, zenbaitetan, adierazkaitza da.

Irudiek gozamen horretan laguntzen dute, Sempek, akuarelaz eta arkatzez egindako marrazkien barruan sartzen gaitu, Parisiko ibilaldietan, Montmatre auzoan, Rochechouart bulebarrean edo New Yorkeko 59 kaleko neguan kokatzen du irakurlea, gertaleku horietan gaudela pentsatzeraino. Begirada berezia du Sempek, iradokitzailea oso.

Liburu hau gazte zein helduentzat neguko arratsalde baterako irakurketa aproposa dela iruditzen zait. Batez beste ordu pare bat behar duen irakurketa goxo honek zirrara sakona sortu eta gogoia bahituko dizu. Denbora gelditu eta atmosfera malenkoniatsuan murgilduko zaitu.

Eta liburuaren azken orrietako aipu honekin amaitzen dut: «Beti geu izaten jarraitzen dugu, eta iraganen izan ginen haiek bizirik jarraitzen dute denboraren amaiera arte».